

# Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko urtarrilak 24

## Naturismoa eta medikuntza elkarlanean Corellan



Corellan zabaldu berri da Notre Dame de Chartres izeneko medikuntza alternatiborako zentrua. Enpresa berri baten eskutik sortu da eta 100 milioi pezetako inbertsioa izan du. Medikuntza alopatico —tradizionala— eta naturista uztartzeko asmoz, mediku, naturopata, iridiologo, kinisiologo eta baita Iparramerikako indiarren tribuen aztiak izanen dira bertan, bakoitza bere arloan, baina denak proiektu beraren inguruan: gaisotasunarendako diagnostiko osatuena eman asmoz. Ez dira teknika guzti hauek gaur goizeko ihintzia, baina aintzindariak nahi dute izan Corellan, lehendabiziz bateratuta agertuko bait dira denak, tresna aurreratuenen laguntzaz. Helburua, horrela, medikuntza sendabelarrez hornitzea, edota sendabelargintza medikuntzak duen ospez jaztea, ahalik eta jende gehienarengana heltzeko. Aukeratu ere, Corella ez bait dute aukeratu itsumutsukan, arrazoi geostrategikoak direla baizik.


### Barnean

#### OBJEKZIOA



Ordezko Zerbitzuari ere ezetza nabaria Nafarroan /III

#### JIMENO JURIO



Artaxonako etnografoa bere proiektu berriez mintzo /VIII

#### Amen eta omen



#### AINGERU EPALTZA

**K**aka! Gauzak ongi egin nahi dituztenean ere lotsarazi behar gaitiztek», egin nuen igandean nere baitan Donostiako Victoria Eugenia Hernandorena, Larre eta Izeta bertsozaleei egin zitzaizen omenaldiaren erretansmisioa ikustean. Bistan da, ez nintzen antolakuntzaz ari, ez hiru omenduez, ezta Telebistak eskaini bertsoez ere. Javier Zubiaur Bianako Printzea erakundeko zuzendariak omenaldiaren bukaera aldean burutu zuen hanka sartze galanta begiztatu berria nuen.

Ez dakit lehen aldiz zen Nafarroako Gobernuak gisako ekitaldi batera hain goi mailako ordezkariak igortzen zuena. Ikusia naiz lehenago —eta orduan ere lotsatu— hagitzez erantzukizun apalagoko funtzionari euskalduna —«¿quien es el vasco aqui? ¿Ese? ¡Pues que se vaya!»— berarekin ikusteko gutti zuen politika batek euskaltzalegoan sortarazten duen arbuioaren ordaina zitzu bidez biltzen, gisako ekitaldiren bateko sari banaketan. Alde horretatik positiboa izan zen, igandean, hemengo erakunde publikoaren izenean azken ziminoaren eskumakiltakoa ez, baizik Nafarroako kultur ofizialaren kargu gorenarekin joatea. Hori ez da ukatzen ahal.

Aldiz, konprenigaitza zait, gaurregun ere, 1992an, halako pertsonaia ilustreak ohizko eskema mentalak beritu gabe agertzea klase honetako ospakizunetara. Zubiaurrek —ongi ala gaizki, horrek ez du muntarik— euskaraz zerbait irakurtzeko eginahal egin zuen. Horretan akitu balu saioa, lerro hauek txalotzeko izanen lirakeke. Zertaz, bada, erdaraz segitu inork eskatu gabeko mitinari? 'Nafarroa Euskadi da' eta gisakoak, gezurrak ez ezik, lekuz kanpo zeuden beharbada jendearen aldetik, baina Victoria Eugenia izan banintz neketan atxikiko nituen zitzu jotzeko gogoak.

Gaurregun, bertsolari jaialdiak dira euskara hutsez burutzen diren jendaurreko agerraldi bakarretarik. Gainerako aunitzetan, 'euskararen alde' izenburupean etorri eta ere, izan ohi da moldatzen denik erdarari leku egiteko. Izanez ere, bada gure hizkuntzaren aurkakoa izan gabe, euskara hutsezko egoerarik izan daitekeenik kaskoratzten ez duen jendea; euskara amestu ere ez dezakeena gaztelania ondoan —edo gainean— izan gabe. Bakarrak ikuspegi horretatik ulertzen ahal da Zubiarrek igandean egin zuena. Ez bide zekien halako inguru batean erdaraz mintzatze hutsa, hoberenera jota, zakarkeria eta gaizki heziaren markatza hartzen dela.

Antzinako denboretan, oraino hazi gabeko haurrak, ongi heziak zirela erakusteko, isilik egoten ziren mahaian. Zubiaurri edukazio arau oinarritzko hori atzendu zitzaion, itxura denez, igandean.



## Gure Aukerak

### ERAKUSKETAK



**Robert Capa** argazkilari hungariarraren erakusketa ikusgai dago gaurdanik Iruñeko Udalaren Hiritar Eragintza saileko erakustokian. Zaterdagalean. Inoizko argazkilari-rik hoberenetakoa eta famatuena-koak ederki ezaguna egin zuen Gerra Zibilaren garaiko argazkia, errepublikar aldeko miliziano bati ateratakoa. Horretaz gainera ere Bigarren Mundu Gerran aritu zen argazkilari, eta Indochinan zegoela, 1954ean, vietminh mina bat zapaldu eta bertan hil zen, berrogei urte zituela.

**Carmelo Alcalá** argazkilariak herri kirolari buruzko erakusketa du ikusgai Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Erakusketa, Herri Kirol Federazioa eta Baztango Udalaren laguntzaz antolatuta, beste zenbait herritara joanen da ondoren, hala nola Zangoza, Tuter, Azkoien eta Castejonera. Elizondon gaur arte izanen da.

**Iñigo Arozena** iruensearen pinturak daude ikusgai gaurtik aurrera eta otsailaren 9ra arte Iruñeko Lan-kide Aurrezkiaren erakusketa aretoan.

### ZINEMA



**Club Deportivo Navarrak**, bere urrezko ezteiak direla eta antolatu duen zikloaren barruan, 'Ametsak eta extasiak mendian' izeneko diapositiben emanaldia eskainiko du gaur ostirala, arratsaldeko zortzietan, Iruñeko Jarauta kalea, 78. zenbakian duen egoitzan. Diapositibak Jesus Telleriak aurkeztuko ditu.

**Nouvelle Vague** zikloaren azken bi filme ezezagunak ikusi ahal izan-


## Ihauteriak: Leitza, Sunbilla, Ituren...

Ihauterien garaia heldu da berriro Nafarroara, eta lehendabizikoa, Almandozen izan zen, joan den igandean. Asteburu honetan Sunbilla, Leitza, Ituren eta Zubietan izanen dira, eta ekitaldi franko prestatu dira horretarako.

Leitza, horrela, rock kontzertua izanen da larunbat gaueko hamarretan, frontoian, eta ordu berean afora antolatu dute Aurrera elkarteak, Iruñeko Gaiteroen laguntza izanen duena.

Sunbilla, gaur, eta goizeko bederatzietan gosaldun ondoren, baserriz baserriko itzuliekin egingen dute gazteek, puxkak bilduz. Larunbatean, etxez etxeko ibilaldia egingen dute, eta 20.00etan maskara dantza. Igandean, karroza-desfilea, eguerdian, eta ondoren, pilotalekuan, herriko dantzariak, zerri eta bildotsaren zozketa eta Gipuzkoa eta Sunbillaren arteko desafioa herri kirolan.

Ituren eta Zubietan ere bihar larunbata hasiko dira ihauteriak, afori batekin, eta astelehenean zubietan eta auriztarrek Iturenera joanen dira.



I. MARTIARENA

Asteartean, ohienez, bisita itzuliko diete iturendarrek, eta larunbatean Kontuen Eguna ospatuko da, bertsolariak, bazkaria, eta dantzaldiarekin.

Besta guzi hauen ondotik zerbait gehiago egiteko gogoia izanez gero, ibilaldia egin daiteke inguru honetan, bereziki Basaburuan zehar.

go dira urtarrilaren 24ean Nafarroako museoko ekitaldi aretoan arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Filmeak 'La boulangere de Monceau' eta 'La carriere de Suzanne' izanen dira, biak Eric Rohmer-enak. Aurkezpenak egiteko ardura Ramon Herrearen esku egongo da.

**Haurrei eskainitako zinema zikloa** Lizarran. Urtarrilaren 26an, igandea, 'Las aventuras del baron Münchhausen' izeneko filmea ikusi

ahal izango da Julian Romano musika kontserbatorioan, arratsaldeko seietatik aurrera. Proiektzioa Almudi kultur taldeak antolatu du.

### MINTZALDIAK



**'Migratzaileak: usoa, usapala eta oilagorra'** izeneko mintzaldia izanen da gaur, ostirala, arratsaldeko zortzietan Iruñeko Aurrezki Kutxak Armadaren Etorbidean duen era-

kustaretoan. Mintzaldia Nafarroako Ehiza Federazioak antolatu duen ehizari buruzko ihardunaldien barruan dago.

**'Emakumea eta giza eskubi-deak'** mintzaldia emanen du gaur ostirala Cristina Almeida Iuko diputatuak. Mintzaldia arratsaldeko zortzietan izanen da Iruñeko Larraona ikastetxean, Amnesty International taldea antolatu duen zikloaren barruan.

### ERRAN DUTE

**Negoiazioa posible egiteko urrats berriak eskatuko nizkioko ETA-ri».**

**Patxi Zabaleta**  
HBko buruzagia

**«Estatuaren jarrerak aurkakotasuna dakar».**

**Juan Cruz Alli**  
Nafarroako lehendakaria

**«Pozten naiz Tolosaren kontrako partiduaren ondoren deus ezin genuela egin esaten zutenei ustekabea eman diegulako».**

**Patxi Eugi**  
Pilotaria

**«Drogazale, gaizkile eta Europako inbasore berriak garaela esaten digu jendeak».**

**Kebir Sabar**  
Marokoko etorkinen ordezkaria

### ASTEKO PERTSONAIK

**Mateo Garralda**



Eskubaloj jokalaria

**Jose Antonio Urbiola**



EAJko NBBko burua

**Mikel Urmeneta**



Margolaria

**B**urlatoko jokalaria Stockholmen jokatu den eskubaloj Munduko Txapelketako 'izarren selekzioan' sartu dute adituek, euskaldun batek aspaldian jasotzen duen merezimendurik handienetakoa. Atletico Madrilan aritzen den hegaleko kaxtoak, horrela, berarengan paratuta dauden itxaropenak baieztatu ditu, eta bere 22 urtekin, munduko jokalaririk onenen artean kokatu da. Garralda Espainiako selekzioarekin aritu zen, eta lehendabiziko partidu guztiak irabazi bazituzten ere, Jugoslaviarekin galdu zuten gol bateko emaitzaz, eta brontzezko dominarako partidua jokatu behar izan zuten EIK-ko taldearekin. Hor ere garaipena lortu zuten eta Garraldak bost gol sartu zituen, txapelketa osoan zehar izan duen batezbesteko kopurua, alegia.

**P**asa diren hauteskundeetan Nafarroako Euzko Alderdi Jeltzaleko zerrendaburua, NBBko buru izendatu dute aste honetan eta ondorioz EBBko partaide. Urbiolak Vicente Arozenaren orain arteko buruaren lekua hartu du, talde abertzalea lurralde honetan egiten ari den berrikuntzaren barruan. Hori dela eta, atzo aurkeztu zen modu ofizialean Iruñean, Xabier Arzallusen presentziarekin, hurrengo hauteskunderi begira taldeak egin duen egitasmoa. Urbiola EAJko partaide izan zen hasieran, baina gero HBra pasa zen, eta foru parlamentaria ere izan zen talde honekin. Bost urte Venezuelan eman eta gero, EAJn sartu zen berriro, duela urtebete. EAJren bereizketa ondoren, Carlos Claveria eta Vicente Arozena izan ziren Urbiolaren aurrekoak.

**M**argolari iruindarrak berriro ere bete ditu orrialde eta zutabeak, baina ez bere pinturarekin propio esanda, bere pinturak sortzen dituen esamesekin baizik. Iruñeko Navas de Tolosako paretan dagoen murala ez dute arte liburuetan sartuko, baina, nonbait, baten bati azkurea sortzen dio. Kontuak kontu, eta goiz batean lana agertu zen bezalaxe, beste batean txuri txurituta aurkitu zuten iruenseek. Temoso bera, berriro margotu zuen Urmenetak, oharpen txiki batekin, non jabetasun pribatuaz ohartarazten zuen. Honek ez zituen izutu inkisidoreak, eta berriro zoldaz beterik agertu zen goiz batean. Akaso hori zen benetako helburua, artea probokatzeko zela esaten bait zuen baten batek. Horretan, behintzat, Urmeneta mende honetako artistarik hoberenetakoa da.

### MUSIKA



**Erretereriako Orkestra Gazteak** joko du bihar larunbata, hilak 25, Barañaingo Santa Maria parrokian, bertako Kultura batzordeak antolatu duen 'Orkestra Gazteak' izeneko zikloaren barruan.

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoak** Iruñeko Gaiarre Antzokian joko du gaur ostiralean arratsaldeko zortziak laurden gutxitan. Fernando Remacharen 'Alba', eta Mendelsson eta Mussorgsky-ren lanak izanen dira entzungai.

### BERTSOLARIK



**Bertso jaialdia** izango da Leitza zineman heldu den igandean, hilak 26, arratsaldeko zazpi t'erdietan. Bertsolariak Euskitze, Egaña, Murrúa, Telleria, Peñagarikano eta Lizaso izanen dira eta Iñaki Perurena arituko da gajartzaile.

### KIROLA



**Fondoko eski zeharkaldia** antolatu dute Sakanako Kirol Batzordeak eta Sakanako Mendigoizaleek, Urbasa eta Lizarragako portuaren artekoa, heldu den igandeko, hilak 26. Irteera goizeko hamarretan izango da, eta bi ordu t'erdia eta hiru ordu bitarteko zeharkaldia izango da. Izena emateko Olaztiko Sutegi elkartera jo behar da: 46 08 59 / 56 32 33.

**Mendi zeharkaldia** antolatu du Iruñeko Club Deportivo Navarrak heldu den igandeko, hilak 26, Itzal eta Nabazkozeren (Zaraitzu) artekoa. Izena emateko: Jarauta, 78, 19.00ak eta 21.00ak bitartean.

### ADI!

**EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0**

Asteazken zehar 8.30etatik 9etara... Bertatik Bertara Informazio saioa

**XORROXIN IRRATIA FM 107.5**

Egunero 12.00etatik 13.00etara... Informazio Saioa Euskal Herria eta mundua zabaldu.

**HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9**

Asteazken zehar OMn 14.45etatik 15.00etara eta FMn 14.00etatik 14.10etara... Herri Kronika.

**RNE RADIO 1 OM 835**

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaia, musika.

**ARALAR IRRATIA FM 106.2**

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsona ospetsuei elkarriketak.



**U**daberri honetan egingo dira Nafarroan Ordezko Zerbitzu Sozialari intsumisoen aurkako lehendabiziko epaiketak. Egun, hirurogeitamarren bat dago egoera horretan, baina objektoreen kopuru orokorra

1.710koa da, azken datuen arabera. Iazko udazkenean zabaldu ziren lehendabiziko prozesuak, eta orain egingo diren epaiketak hauek berebiziko garrantzia izango dute objektoreen mugimendurako. Bitartean, ordezkoko zerbitzuak berak aurrera

segitzen du, toki gutxi eta bertako langileen kexuen artean. Langile jendearen eta sindikatuen laguntza lortzera zuzenduko da Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak udaberri honetarako prestatu duen kanpaina berria.

## Ordezko Zerbitzu Sozialari ere ez

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Nafarroan, egun, 1.710 objektore daude legalki onartuta, Espainiako Justizia Ministeritzaren datuen arabera. Datuak, baina, ez datoz bat Kontzientziaren Eragozpenarako Batzorde Nazionalarekin, bi erakundeen arteko desoreka burokratiko dela eta. Ordezko Zerbitzu Soziala betetzeko 171 toki baino ez daude Nafarroan, eta egun, Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, berrogeitau objektore ari dira zerbitzua betetzen. Beste hirurogeitamar bat objektorek intsumisotzat hartu du bere burua zerbitzu honen aurrean.

Nafarroako kopurua Europako aluenetakoa dugu objektoreari dago-kionez, baina 1986tik aurrera izan zen etengabeko gorakada nolabait moteldu egin da 1991n. Hala ere ordezkoko zerbitzua betetzeko tokiak zeharo eskasak dira oraindik gaur egun, eta lehendabiziko arazoak sortu dira langile eta sindikatuen kexuak direla eta.

Nafarroan bost erakundeak daukate hitzarmena ordezkoko zerbitzurako tokiak eskaintzeko: Gurutze Gorria, ONCE itsuen elkartea, DYA, Caritas eta Nafarroako Gobernuak. Azken honetan Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren barruan daude toki gehienak.

Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak Presidentzia kontseilariak iazko abenduaren 12an Nafarroako Parlamentuaren aurrean eginiko agerraldian azaldu zituen toki hauei buruzko zehaztasunak. Miguel Sanz kontseilariak orduan adierazi zuenez, Nafarroako Gobernuak irizpide nagusia erabili zuen horrelako zer-

**H**iru dira sindikatuen kezka objektoreak hartzerakoan: egunero-ko lanean sortzen duen zerbitzuaren kalitate mailaren jaitsiera; lanpostuak bete litzaketen taldeei eragindako kaltea; eta bertako langileendako sortzen dituen oztopoak.

bitzuetarako hitzarmena sinatzera-koan, «baliabideak paratzea, nafar objektoreek zerbitzua Nafarroan bertan egin zezaten», hain zuzen ere.

Zerbitzuan propio trebatzeko bi hilabeteko ikastaroak antolatzen ditu departamentu berak, eta ordurarte hamabi izan dira zerbitzua egin dutenak. Sanzek adierazi zuenez, «eta hasierako jarrera guztiz positiboa ez bazen ere», emaitzak onuragarriak dira, «batez ere benetako helburua bete delako —Nafarroan tokia izatea—, egindako lanagatik baino».

Zerbitzu honen inguruan, baina, kontrako jarrerak sortu dira bereziki sindikatu eta langileen aldetik. Horrela, suhiltzaileen artean kexu franko jaso dira jadanik, batez ere objektoreek beraiek erakutsitako jarrera zela eta. Prestakuntza falta eta gogorik eza dira kexuetarako arrazoi nagusiak, eta sindikatuek eskumen handiagoa hartu dute prestakuntza honen aurrean. Horrela, eta aurretik

prestaturiko ekintza baten barruan, objektoreei lan egiten ez uzteko erabakia hartu zen lehengo INSERSON. eta zenbait kasutan, prestatzaileen trasladioa erabaki da orduan.

Horrelako ekintzak indartzeko asmoz, udaberriko zenbait ekitaldi antolatu nahi du Kontzientziaren Eragozpenarako Mugimenduak (KEM). sindikatuen parte hartze zuzena izango duena.

Hiru dira bereziki langileen kezka: objektoreak hartzeak dakarren zerbitzuaren kalitate mailaren jaitsiera; lanpostuak bete litzaketen taldeei eragindako kaltea —gizarte langileak, teknikoak, eta abar.—; eta bertako langileendako sortzen dituen oztopoak, objektoreen esperientzia eta motibazio falta dela eta. Hemen



Soldadutza egin nahi ez dutenendako «zigorra» deritzote intsumisoei Ordezko Zerbitzu Sozialari, eta objektoreen beraren esanahia aldarazi egiten duela salatzen dute, «ez bait du zalan-tzan jartzen Armadaren egitekoa».

daude KEM-koak. Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeetan ez bait dute zerbitzu hau onartzen.

Garbi dago, baina, erakunde hauek askotan eskuak lotuta ditzutela, bertako langileak kontra egon arren, goitik etorritako mandatuak agintzen bait dute. Frankotan desoreka

na-bar-menak aurkitzen dira teoriak berdintsuak izan beharko luketen zerbitzuen artean, tokiz tokiko arduradunen jarrerak direla eta.

## Epaileen iritzi ezberdinak

M.K. / IRUNEA

Ordezko Zerbitzurako lehendabiziko deialdiak 1989an hasi ziren, eta geroztik urtean biko maiztasunekoak izan dira. Hala ere, deitutakoen kopurua beti izan da objektoreena baino franko murriztuagoa Kontzientzi Eragozpenarako Espainiako Batzorde Nazionalak (CNO) zerbitzua egiteko dituen tokiren eskasia dela eta.

Eskasia hau are nabarmenagoa da Euskal Herri osoan, erakunde askok, gizartearengandik dagoen presioa dela eta, ez bait dute horretarako laguntzarik ematen.

Gainera, zerbitzuaren aurrean ere beren burua objektoretzat hartu dutenen kopurua beti izan da hamazortzi hilabeteak bete dituztenena baino handiagoa.

Horren aurrean, CNOek iripide ezberdinekin jokatu du, eta lehenda-

biziko txandako intsumisoen txostenak artxibatuta daude, amnistia oraindik jaso ez badute ere.

Joan den udazkenetik aurrera, baina, eta ordurarte zegoen jarrera geldoari buelta emanez, ordezkoko zerbitzuari intsumisoei prozesuak zabaltzeari ekin zieten fiskalek. Eskakizuna, bateratua izan zen eta da: bi urte eta lau hilabeteko gartzela zigorra, soldadutzari intsumisoei baina hamaika hilabete gehiago.

Nafarroan udaberri honetan sei epaituak izango dira, Euskal Herri osoan orain arte bat ere ez bada egin ere. Horieta gainera, beste bost objektoreei zabaldu diete prozesua, baina abokatuek egin beharreko defentsa oraindik ez dago prest, eta gehiago luzatuko direlakoan daude KEMen.

Euskal Herrian ez baina Espainian

zortzi epaiketa izan dira dagoeneko, oso emaitza ezberdinekin. Lehendabizikoa Albaceten izan zen 1990eko udaberriean, eta bertan sei gazte epaitu zuten. Bat aldegin,

beste bostak zigorra betetzen ari dira gaur egun, hirugarren graduan daudelarik.

Toledo eta Granadan iaz egindakoetan, epaileak zigorra bera ezarri zuten objektoreei, baina beraiendako indultoa eskatu zuten segidan. Gobernuak, baina, baten eskaerari uko egin zion bati, eta bestea erabakiaren zain dago oraindik.

1991ko udaberriean Salamancan egindako epaiketan, bestalde, bederatziz hilabeteko gartzela zigorra agindu zuen epaileak zerbitzuari in-

tsumiso batendako, eta hamabi hilabete baino gutxiagokoa izanda, lehendabiziko zigorrari libre geldituko zatekeen. Fiskalak ere errekurritu zuen erabakia.


Teruel, Burgos eta Zamoran ere epaiketak izan dira, baina aipagarrietakoa Madrileko instrukzioko epaileak hartutako erabakia izan da, iazko abenduan fiskalek zabalduko kereila artxibatzea erabaki bait zuten. Hau izan zen mota honetako lehendabiziko erabakia.

Epaileak erabakian adierazi zuenez, «objektoreari jarritako zerbitzuak —gutxiagotuei laguntza la-

nak— ez zuten deus ikustekorik nazioaren defentsarekin», eta horregatik, bere ustez ez zuten Konstituzioaren inolako artikulurik bortxatzen. Epailearen erabakiaren arabera, objektorearen jarrera «disidentzia politikaren barruan ulert daiteke, kritika politikak babestuta dagoena, alegia». Erabakia fiskalak errekurrituta dago.

Udaberri honetan Euskal Herrian zabalduko diren prozesuen aurrean, beraz, ikusmin handia dago, hain presio sozial handia dagoen zonalde batean egiten diren lehendabizikoak izango bait dira.





Medikuntza naturalista eta tradizionala uztartuta

**D**uela astebete zabaldu zen Corellan Notre Dame de Chartres medikuntza alternatiborako zentru berria. Ehun milioi pezetako inbertsioarekin, lehendabiziz

bateratuko dira Euskal Herrian medikuntza tradizionala —alopatika— eta naturista, eta horretarako egin diren ahaleginak ez dira nolana hikoak. Punta puntako teknologia-

rekin, berrogei bat langile arituko dira bertan, eta asmoak ez dira inguru hurbilean mugatzen, Estatu espainiar osoa hartu nahai bait dute kontutan.

## Naturismoa, seriotasun bila Corellan

ALBERTO BARANDIARAN / CORELLA


Corellan ireki berria den zentru honek arreta handia piztu du bi medikuntzen jarraitzaileen artean, bertan jarriko bait da praktikan asko eta askok amestu dutena: ohizko medikuntza —alopatika— eta naturalisten metodoak lehendabiziz elkarlanean eta bateratuta guztien helburu batekin.

Horretarako berrogei pertsona daude zentruan, sendagile, aztertzaile eta bestelako langileen artean, baina bereziki aipagarria da bilduko den adituen kopurua. Zazpi mediku, hiru farmazilari, bost naturopata, bost erizain, bi kinesiologo, inmatarietan bi aditu, bi iridiologo, sendabelargintzan bi aditu, laborategitako bi aditu, eta zuzendari bat.

Hara joango diren bezeroek bost azterketa izango dituzte, gaitzaren jatorri zehatza azaldu eta aurkitzeko. Horrela, lehendabizi, neurri eta pisuaren azterketa izango dute, eta ondoren HIBO izeneko azterketa egingo diete. Odolaren analisi horren bidez —gaur egun aurreratuenetakoa—, gaitzaren lehendabiziko diagnostikoa izango du gaixoak. Ondoren analisi kliniko-medikoa, kinisilogikoa eta iridiologikoa izango dira.

Bostgarren analisia, eta azkena, naturopatak egindakoa izango da, eta bost azterketak eskuan izanda, diagnostikoa eta aurrera eraman beharrekotratamendua zehaztuko du azken honek.

Tratamendua, beti izango da naturista, hau da, belarrak osagai naturalak egindakoa, eta horretarako ere laborategi bat dauka zentruak, edozein momentuan eskatutako produktua egin ahal izateko.



Zentru osoan zehar Chartreseko eliza eta Ama Birjinaren irudiak ikus daitezke.

Jesus Villar bertako zuzendari medikoak azaldu duenez, azterketa guztien arteko oreka lortu nahi da, eta oso gutxitan izaten dira diagnostikoko kontrajarriak, baina kasuz kasuko azterketa eta eztabaidak izango dira, jakina. Bertan dagoen taldeak, alabaina, medikuntza naturalarekin harremana izan du aurretik, eta oinarriko filosofiarekin bat datozenak: gaitz guztiak gorputzak duen toxikazio baten ondorioak dira.

**TOXIKAZIO EZABATZEA LEHENDABIZIZ** Tratamenduaren lehendabiziko urratsa, beraz, gehi-

kokatzen den toxikazio hori ezabatzea da, eta horretarako belarrak eta zenbait teknika naturistak erabiltzen dira, hala nola kamamilen baporeak, bainuak, eta abar.

Inbertsioa 100 milioi pezeta ingurukoa izanda (bost milioi libera gutxigorabehera), zentrua martxan jarri duen enpresak ez dio erreparorik paratu instalakuntzei. Sartu eta begibistakoa da oso zainduak eta batzuetan luxozkoak direla. Horrela, iridioskopia elektronikoa, oso laborategi osatua, eta medikuntza alopatican aurki daitezkeen tresnak badaude, eta horretaz gainera Meditex izeneko sare informatikoarekin da-

go konektatuta zentrua. Sare informatiko horretara joz gero gaitz eta sintoma gehienei buruzko informazio zabala modu errazean eskura daiteke.

Jesus Villar zuzendari medikuak azaldu duenez, esperientzia «guztiz berria eta aitzindaria da, Estatu espainolean irekitzen den mota honetako lehendabiziko zentrua bait da hau». Corellan zabaltzeko ideia ere oso lotuta dago eskuratu nahi den eremuarekin zuzendari medikuak berak azaldu digunez, «Corella Euskal Herria, Madril eta Kataluniaren arteko gune geografiko estrategikoa bait da».

Zentru honen bidez, zenbait aurreritzi ere hautsiko direlakoan da Jesus Villar, «bi medikuntzen arteko harremanak, ezberdintasunengatik oso gogorak izan bait dira orain arte. Medikuntza alopaticoa —tradizionala— zeharo baztertu du betidanik naturista, eta nere ustez, ideia ona da biak batzen saiatzea, eta gainera o-

**G**aixok bost analisi izango ditu zentru honetan, eta bost diagnostiko eskuan, naturopatak erabakiko du azken emaitza eta tratamendua. Horretarako sendabelarraz baliatuko dira, eta baita bertan paratu duten laborategiaz ere.

egokia da bizi garen garaiarako azaldu du.

Izan ere, Homeopatian katedra paratu zuen duela gutxi Pariseko Unibertsitateak, eta orain dela bi urte eskas onartu zen medikuntza munduan iridiologiaren esanahi zientifikoa.

Hori dela eta, «jakinmin handia dagoela azaldu du Villarrek «medikuntza naturalistarendako erreferentziatzeko punturik ez bait zegoen orain arte».

Orain hemen dago, eta arlo hori seriotasun itxura emateko ere baliagarria izango delakoan nago», adierazi digu.

## Kinisologia eta iridiologia

A.B. / CORELLA

Analisi kliniko-medikoa, odolekoa eta naturopataz aparte, kinisologia eta iridiologia dira Notre Dame de Chartres zentruan aurki daitezkeen azterketetako bi, akaso ezezagunak, hala eta guztiz ere.

Kinisologia, Adolfo Herrero bertako adituak azaldu duenez, giharreak aztertu eta hortik gorputzaren egoera eta desorekei buruzko informazioa jasotzeko teknika da. Horren bidez, zenbait organok duten egoera ezagutu daiteke.

Herrerok adierazitakoaren arabera, gorputzak hiru mail dauka: fisikoa, mentala, eta emozionala. Hiru mailek elkar komunikatzeko zenbait bide dituzte —bide energetikoak, mentalak eta emozionalak—, eta sare hauek zenbait gune zehaztutan uztartzen dira. «Horrela —azaldu du Herrero— gune horiei galdetzen bazaie, eta giharren erantzuna kon-

tutan hartuta, organoen egoera ezagutu dezakegu».

Irisen azterketaren bidez, pertsona bakoitzak duen kode genetikoa azter daiteke, Pedro Gracia adierazten duenez. Maila genetikoa hau alda daiteke, bakoitzak duen bizitza eta bizimodua dela medio, eta aldaketak hauek antzeman daitezke bertan.


«Horrela —dio Graciak— batera batek izan dezake oso gibel ahula genetikoki horrela jaso duelako. Hala ere, gaixotasuna bakarrik agertuko da gibela horren gain soberazko tentsioa ezartzen denean. Horrela, gaixotasuna ekidin daiteke, ahulezia horren jabe behin izanda. Hori egiteko dugu iridiologiaren bidez, ahulezia horiek aztertu eta aurkitzea».

Irisen bidez ere, Graciaren arabera, norberaren alde mentala edo psikologikoa antzeman daiteke, eta baita duela asko gertatutakoa ere «irisen horrelako azterketa geldituzten bait dira».



Jesus Villar, klinikako zuzendari medikoa.





Medikuntza naturalista eta tradizionala uztartuta

## Indiar leinuen laguntzaz

A.B. / CORELLA

Corellako kontsulta txukunean behin sartuta, askoren begiak, akaso, zentru guztian zehar sakabanatuta dauden birjinen irudietara zuzenduko dira, eta baita Chartreseko Notre Dame elizaren irudietara ere, benetan ikusgarri eta ugariak bait dira. Bertan lan egiten dutenek arlo medikoaz bakarrik aritu nahi dute behin eta berriro, baina garbi ikus daiteke zentruaren sortzaileek berebiziko debozioa dutela jarri dituzten irudi hauetarako.

Izan ere, Chartreseko eliza Lurbi-rako indar telurikoen —magnetikoak— bilgune garrantzitsuenetakoa omen da, eta esoterismoak bertan du bere zentru gogokoenetarikoa. Horretaz gainera, enpresaren sortzaileek ere birjinarekiko eta irudi erligiosoenekiko joera berezia dutela ezin daiteke uka. Aurkezpen egunean, meza egin zen Corellako elizan, eta zentrua Ama Birjinari eskaini zioten.

**PUREPECHA ETA TUMASCAL** Zentruari irudi misteriosua ere emango dio, dudarik gabe, Ipar Amerikako indiarren zenbait 'mediku-aztien' presentziak. Hain zuzen ere, sendagai erabiliko diren belarrak eta tekniketarako kontratu bat badu zentruak Ipar Ameriketako Indiar Nazioa osatzen duten zenbait herrirekin —Xiouak, Txeyennak, Dakotak, Komantxeak, Nabajoak, eta abar...— arduradunek adierazitakoen arabera.

Nazio guzti hauek 'Lurraren Kantata' izeneko elkartearen daude bilduta, ohiturak, etnia, eta ekologismoa aldarrikatzen dutenak, eta horko bi partaide izan ziren joan den abenduan Corellan egin zen aurkezpenean: Tigre Perez Purepecha eta Fred

Contreras. Tigre Perez Lurraren Kantuko zuzendaria da, Chaman eta apaiza Purepecha. Fred Contreras, bestalde, Iparraldeko Raramurisen Txaleko Gorriaren elkarteko buruzagia da, Gizaki medikua eta Tumascal buruzagia izateaz gain. Biak daude beren herrien ordezkatzan eta biek badute jakinduria eta autoritatea

**S**endagai erabiliko diren belarrak eta tekniketarako kontratua badu zentruak Ipar Amerikako Indiar Nazioa osatzen duten zenbait herrirekin, hala nola, Xiouak, Txeyennak, Dakotak, Komantxeak, Nabajoak eta abar.

horretarako, euren herriek emaniko boterearen arabera.

Biak, bata Arizonakoa eta bestea Coloradokoa, martxo eta apirilatik aurrera izango dira Corellan, Tumascal teknikak hemen praktikan jartzeko. Tumascal, berez, eta indiarren sinesmen zaharrek agindu eta erakutsitakoaren arabera, txabola bat da, harri beroa, ura, sua, lurra eta haizearekin.

Indiarrak gorputza, burua eta arima garbitzera abiatzen dira haruntza, eta horretarako Kopel belar bereziak, zuhaitzen izerdia, intziensoa, eta zedroaren azala erretzen da harri beroen gainean, arbasoen izenak gorraipatzen diren bitartean. Belar horietatik ateratzen den lurrina da sendagaia, indiarren sinesmen zaharren arabera.

Fred Contrerasek Coloradoko ospitale batean egiten du lan, droga-zale eta alkoholikoak sendatzen, eta



Tigre Perez eta Fred Contreras Corellara egin zuten bisitaldian.

bera da ohizko medikuntza eta naturalistaren arteko zubia hango indiarrendako. Horretarako, sindromea pasatzen uzten die, eta ondoren zuku asko ematen die, «gorputzak azukre asko behar duelako». Behin sindromea kenduta, Tumascalera eramaten ditu, gorputza erabat garbi dadin.

Maiatza eta apirilatik aurrera, bi buruzagi hauek Corellan izango dira bertan lan egiteko, eta kontsulta hauek dagoeneko martxan dauden beste azterketei gehituko zaizkie. Horrela, Tumascal teknikak paratuko dituzte martxan, gorputza eta arima garbitzeko, eta ondoren masaien bidez egingo dute tratamendua. Horiekin nahastuta, askatasuna eta amodioarekiko aldarrikapenak ere izango dira.

mintzoak

### Harrapatzen bazaitu

● Gizon izan balitz, ez zuen intsumiso saltsatan sartu beharrik izan: alturarik aski ez, baztertuko zuten. Ez du aspaldi pelukeriara joateko ordurik eskatu. Ez dute karteroek harendako ezkutitzik partitzen: ez baitute noran-on. Ez du periodikorik erosten, bai erabili ordea: oinetan jaten ditu, berokarri. Ez dut eskean ikusi, baina ekonomia afera horietan uste dut nere kuriositate-jakinahiari hortxe paratu beharko niokeela muga; berak jakinen du.

Abrigo gris kolore bat da, bi hankarekin. Iruñeko karraketan ibiltzen da. Lehen Parte Zaharretik ez zen ateratzen, eta denak konforme. Orain, berriz, Karlos III.era ateratzeko atrebentzia izan du. Palestinarra sartu da judutarren eremuan. Indioa pasa da erre-serbako mugaren bertze aldera. Arriskugarria. Ez bada lehengora bueltatzen, ez dute hor luzaro utziko. Apustua ezetz.

Jende aunitz denean, igual jarrita ikusiko duzu harrizko aulkiren batean. Baina jende gutti inguruan dela, zutitu eta biktima bila abiatuko da. Norbaiten kontra jokatzen. Buruz buru aritzea gus-tatzen zaio. Espaloian barna joaki zarella ikusiko duzu, eta xeble edo berexia baita erreparatuko diozu. Baita berak ere zuri. Egundaino ikusi ez horrelako begitza-rik! Zure parera ailegatzean gelditu egingen da, eta zuk segi aintzina. Adituko duzu erraten dizuna. Saingaka zakur ttikia. Giber-lera eginez gero azal beltz zimurtuago duela ohartuko zara, bekai-nek 'ube' bat egin dutela, begiak zuri ari zaizkizula, eta ezpainak nola mugitzen diren: «Hijoputa, cabrón, maricón...». Eta hankak

ere mugimenduan zuregana.

Ez zaizu segituan ixilduko. Berrogeitar bat metro egin beharko dituzu daldarika. Ez aditua egingen duzu. Jendeak begiratuko dizue 'gixajoari' zein egin ote diozun, marmar. Noizpait ere geldituko da. Ez da zurekin sobera nekatuko. Zu bezalako bertzeren bat hartuko du eta harekin hasiko da. Zure salbazioa izanen da, zure erreleboa.

Ez du epaile baten aintzinean defenditzeko moduko arazoirik. Baina hijoputa erran dizu, behin eta berriz, kupidarik gabe.

Eta ez diozu kontestari eman. Ez zaizu komeni. Denek ez dute, harelere, zuk bezala egiten. Bakarren batek kontra eta berari burla egiteko balorea izan du. Mutiko kozkor bat ere ikusia dut atso tikiaren ondotik, negarrez segika, jo eta xehetuko zuela erranez.

Uste nuen den denak igual hartzen gintuela etsaitako. Denei berdin ematen zigula begia erasorako. Gaur goizean ordea, merkatuko neskatxa barazki saltzaile ponpoxa batekin ikusi dut solasean, adiskide gisa.

Hortik, bururik batere quenak ateratzen ahal du ez ote dagoen emakume saingalaria guk uste baino sanoago, ez ote duen berreixten nolako jakzera, ibilkera, betazpi eta belarrikondo, nor alde nor aurka.

Etxera sartu bezain agudo komuneko espilu haundiaren parera joan naiz, neure buruari goitik hasi eta beheitarino begiratzena.



## Indiarraren medikuntzari mesfidantzaz begiratzen diote oraindik naturistek

P.A. / IRUÑEA

Aspaldiko ohitura bada ere, duela hogeit bat urte hasi zen naturopatengana joateko edo akupuntura egiteko moda, medikuntza tradizionalarekin konpontzen ez ziren gaitzak sendatzearen. Egun jende askok, sendagaiak hartu baino, nahiago du erremedio naturalekin saiatu, gorputzan eragin txarrak ez dituelakoan. Horren lekuko dugu Corellako klinika naturista berri hau. Lehenengoa Euskal Herrian eta Estatu osoan medikuntza naturala, tradizionala eta indio herrien jakintza biltzen duena. Chama ala indioen aztien jakinduria, mediku eta kinisiologoek azterketak aberastuko ditu, zalantzarik gabe.

Iruñean lan egiten duten naturopatengana jo dugu klinika honi buruz duten iritzia jakiteko asmoz. Alberto Marti Boch Mariae Zentruko zuzendariaren ustetan, alor hau zabaltzearen egiten diren saio guztiak medi-

kuntza naturalaren onerako izanen direla uste du. Hala ere 'chaman' eta medikuarengan ez du konfidantza handiegirik azaldu Alberto Martik, «hori medikuntza magikoan sartu beharko bait zen. Esperimentu berria da, gure medikuntzagatik oso urruti bait dago sioxen ala Hegoamerikako hainbat herriak egiten dituztenetik. Nik mirakulu medikuntzan sartuko nuke».

Jesus Huarte mediku naturopata ere ados dago Alberto Martinen adierazpenekin «Indiarrenak, egia esan, ez dut uste zerikusia duenik guk egiten dugunarekin». Alfonso Zudaire Aza Zentruko medikuaren ustetan, «zaila da horrelako klinika bat ongi funtzionatzea, alde batetik espezialista gehiegi direlako eta bakoitzaren azterketa desberdina izan daitekeelako. Bestetik jende askok joan beharko luke horrelako inbertsio bat errentagarria izan dadin, eta nahiko zaila ikusten dut Corellako

zentruak aurrera egitea. Zaragozan saiatu ziren horrelako proiektu batekin eta berehala egin zuten porrot».

Beti ere, elkarrizketatu ditugun medikuen ustetan medikuntza naturala urrats garrantzitsuak ematen ari da eta hemendik aurrera 1993an mugak irekitzearekin batera konpetentzia askoz ere handiagoa izanen direlakoan daude. Horren ondorioz, medikuen prestakuntza ere hobetuko dela uste dute eta unibertsitatean ere jorratuko direla horrelako gaiak, zeren Europako herrialde gehienetan aspaldian ikasten bait da medikuntza naturala unibertsitateetan, eta Franzian adibidez Gizarte Segurantzaren sartuta dago. Izan ere, Euskal Herrian esparri honetan lan egiten duten mediku gehienak Franzian ala Alemanian ibiliak dira ikasketak egiten. «Alemanian 100 urtetako tradizioa dute medikuntza naturalean eta hasieratik ofiziala izan zen, ez hemen bezala».



## Gazteendako Zokoa

### Haitz-usoa

*Columba livia*

Ez du migratorik egiten  
Herrietan bizi direnen  
senidea  
Urria Nafarroan



### Etxe-usoa

Usa mota honengandik sortu dira egun hiri eta etxeetan bizi diren beste usa guztiak. Horrela, batzuk alde eginda, gaur nekez bereizten dira zeintzu diren haitz-uso garbiak, eta zeintzu hirietatik etorritakoak. Askotan esan ohi da ere usa mota hau Egipton hazten zituzten usangandik datorrela.

Kolorea grisa du nabardura urdinekin, eta amildegi eta zintzurrietan bizi ohi da, oso sail txikietan. Txoloma eta pagausoarekin gertatzen den ez bezala, ez du migratorik egiten, eta bere elikadura pikorrek izaten da bereziki. Oso gutxitan pausatzen da zuhaitzetan, eta bere hegaldia sendoa eta azkarra da oso.

Urtero bi edo hiru aldiz erruten dute, bakoitzean pare bat arraultzeekin. Hemeretzi egun bat pasa ondoren, usokumeek argia ikusten dute, eta txofrakian hogeitabost bat egun ematen dute. Lehendabiziz gurasoek egindako pastaz —esnearen antzekoa— elikatzen dira, eta ondoren aurretik txikitutako pikorrez.

Franko dira Mediterraneoako zonalde osoan, eta baita Irlanda eta Eskoziako kostaldeetan ere. Nafarroan ez dira oso ugariak, eta duela dutxi arte Arbaiungo potxan aurki bazitezkeen ere, egun ez daude bertan.

### Adelaida Moreno

Kontatu behar dizudan istoria egia da. Isteria hau gerraren denboran gertatu zen. Gerra honetan Karlistak eta Alfonso hamabigarrenaren gizonak etsaiak ziren.

Bazegoen Estellarako herri txiki bat, Abarzuza zeukan izena. Herri honetan etxe gutxi zeuden, jende zaharrez osaturik. Herri honetako biztanleak Carlos bostgarrenaren aldekoak ziren. Hauek erres babesa ematen zieten soldaduei, gauetan deskantsatzeko eta hurrengo eguneko planak prestatzeko.

Soldaduak taldeka joaten ziren. Herriko amin zahar batek babestu zuen talde bat. Amin honek ez zeukan familiarik, katutxo beltz bat besterik ez zuen konpaniaz.

Etxea oso zaharra zen eta curia egiten zuenaren ituginak agertzen ziren. Etxeak ere ganbara zeukan.

Gaua ailegatu eta soldaduak, oso nekatuturik, etxe zahar hartara abiatu ziren. Aminak begi onez hartu zituen afaltzerakoan, eta janari asko ez eduki arren, aminak oso gustora babarrun plater bat eskaini zion, bi egunetako ogi puska batekin.

Afaldu ondoren, soldaduak ganbarara joan ziren hurrengo egunetako planak prestatzeko asmoarekin.

Bi mutil tardean:

—Zu Juan, ez duzu hitzik esan afaltzerako orduan. Zer daukazu?

Juanek sustoko aurpegiarekin begiratu zion, eta esan zuen:

—Bildurra daukat, hiltzen banaiz nire andregaiak zer egingo du ni gabe?

—Ba, lehendabiziz, negar asko egingo du eta ondoren beste gizon bat bilatuko du —esan zion txantxetan.

—Beno, utzizuo pakean eta goazen gurera —esan zuen Kepak. Kepa talde burua zen.

Kepa kezkatuturik zegoen, hurrengo eguneko planak ez baitziren errezak. Denak eseri ziren mahaiaren inguruan, Kepak planoak atera zituen eta erakutsi zizkien. Txantxetan ibiltzeko gogoak ahaztu zituzten eta Kepak esandakoari arretaz entzun zioten.

—Bihar sei t'erdietan jaikiko gara eta gosalduta ondoren mendira joango gara. Han ezkutatu eta etsaiak agertzen direnean, eraso egingo diegu.

—Eta nola banatuko gara? —Esan zuen Juanek.

—Zu, Juan, Xabierrekin ezkerretara

# Amina Madarikatua



CARLOS VILLAGRAN

**O**ndo egokitu ondoren, prest zeuden eraso egiteko, baina bapatean Alfonso XII.aren soldaduek inguratu zituzten. Hauek ikustean ez zirela gauza aurrera egiteko, amore eman zuten eta hanka egin beharrean aurkitu ziren.

joango zara. Pello, Inakirekin eskubira. Eneko eta Josu nerekin geldituko zarete aurrexeago zerbait gertatzen baldin bada. Beno, konforme al zaudete? —esan zuen Kepak.

—Bai, bai —baiezatu zuten soldaduek.

—Orduan, bihar arte, eta ondo lo egin. Bihar egun gogorra izango da eta.

Gaua pasatu zen eta egunsentia ailegatzearrekin batera soldaduak jeiki ziren. Gosalduta ondoren mendira joan ziren, aurreko gauan hitzegin zuten bezala. Soldaduak oso pozik zeuden, oso ondo prestatuturik zeudelako.

Ondo egokitu ondoren, prest zeuden eraso egiteko, baina bapatean Alfonso XII.aren soldaduek inguratu zituzten. Hauek ikustean ez zirela gauza aurrera egiteko, amore eman zuten eta hanka egin beharrean aurkitu ziren. Behin etxean, gordeta zeudenean, mutilak harriturik

gelditu ziren gertatutakoaz. Kepak esan zuen:

—Ez kezkatu, gaur gauean beste plan bat prestatuko dut eta bihar irabaziko dugu.

Mutilak lasaitu ziren eta bazkaltzera joan ziren. Berrito gaua ailegatu zen eta soldaduak ganbarara abiatu ziren.

Kepak planoak atera zituen esanez:

—Posizioak aldatu behar dugu, ea horrela ez gaituzten erasotzen. Zu, Eneko, Inakirekin, ezkerrean egongo zara. Juan, Pellorrek, eskubian. Josu eta Xabier nerekin geldituko zarete aurrean. Ah! eta zerbait arraro ikusten baduzue «Kuku kuku» egin. Horrela besteek jakingo dute zer gertatzen den. Beno, orduan, bihar arte.

Egunsentia ailegatu eta soldaduak jeiki ziren ohetik galbana pixka batekin. Mendirantz abiatu ziren eta banatu ondoren, ordu bat itxaron zuten, berriz soldaduek inguratuturik egon arte.

Berrito, ez zitzaizkion ondo atera gauzak eta atzera egin zuten. Etxera ailegatu zirenean, Xabierrek esan zuen:

—Asperturik nago! ez zaigu ezer ondo ateratzen.

Kepak esan zion:

—Probatuko dugu berrito, eta ondo ez bazaigu ateratzen, ikusiko dut zer egiten dudana.

Gauko hamabiak ailegatu ziren eta soldaduak ganbaran zeuden. Honetan, Xabierrek katu beltz bat ikusi zuen eta esan zuen: —Zuek! begira katu beltz hori, ez al da aminaren katua?

—Egia da, —esan zuten besteek.

Ezer gehiagorik esan gabe hartu zuen Xabierrek makil puska bat eta atzeko

hanka batean eman zion. Katuak korrika nolanahi ospa egin zuen. Kepak parte hartu zuen eta planari aditzeko esan zion.

Planak egin ondoren denak ohera joan ziren deskantsatzera. Hurrengo egunean jaiki zirenean, ikusi zuten amin zaharra maki zebilela, eta galdetu zion Xabierrek.

—Zer gertatu zaizu?

—Non? —erantzun zion aminak.

—Hankan. Herren zabiltza —esan zuen Xabierrek.

—Ah! Ohetik erori naiz —erantzun zion aminak.

—Ze hanka partean hartu duzu kolpea? —Galdetu zion Enekok.

Aminak gona jaso zuen eta galtzerdia jeitsiz erakutsi zion. Xabier, ikusterakoan, harriturik gelditu zen. Kolpe hura makil batez egina zegoen.

Gosaltzera joan ziren eta ondoren mendira abiatu ziren. Ondo banaturik zeudenean, Inakik urrutiz beste soldaduak ikusi zituen eta «Kuku kuku» egin zuen. Denak prestatu ziren armak eta hurbildu zirenean tiroka hasi ziren.

Honetan bai! Irabazi zuten Bidetik kantu-kantari etxera abiatu ziren. Oso pozik zeuden, Alfonso XII.aren soldaduei irabazi zietelako. Behin etxean Xabierrek esan zuen.

—Gogoratzen zarete atzeko katua?

—Bai, —erantzun zuten besteek.

—Ba gaur amina maki jaiki da. Eta golpea hankan dauka, nik katuari eman nion leku berdinean. —esan zuen Xabierrek.

Eta Pellok galdetu zion:

—Zer nahi duzu esan horrekin?

—Ez duzu uste kasualitate bat denik? —erantzun zion Xabierrek—. Froga bat egingo diogu.

Soldaduek erabaki zuten katua gela txiki batean sartzea, orduan egia balitz, katuari gertatzen zitzaiona gero aminari gertatuko zitzaioala hurrengo egunean aminak agertu behar zuen gela txikian.

Xabierrek hori esan ondoren besteak kontratu ziren zer esan nahi zuen. Amin zahar hura maltzur bat izan zitekeela.

Hurrengo egunean amina gela txiki hartan agertu zen atrapatuturik.

Orduan konbentzitu ziren amina gauez bihurtzen zela katu, gero kontrakoei plan guztiak kontatzeko. Horregatik makilaz jo zion egunean, aminak ezin izan zituen aditu soldaduek prestatzen zituzten planak.

Eta horrela irabazi zuten.

## KAZKARROAN

### Ihauteriak

Leitzako Bertso eskolan egindakoa

Festatik festa ederki gabiltz  
alper batzuen modura  
eskolatikan noiznahi eskapo  
ez bait zaigu ardura  
lehen eguberriak  
orain inauteriak  
parrandan gure tontura  
ederki asko bizi gara gu  
guraso zaharren kontura

Xabier Arraras

## BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz  
bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Une honetan
3. Garbia
4. Aurpegiko ile
5. Zegoenari

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Osatu
3. Arabako
4. Ulisesen irla
5. Irabaziak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Auzi
3. (Inf.) Erakarri
4. Egona
5. (Pl.) Jaka mota

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

### Zaharrak Berri

Nahi baduk ongi bizi, gaurko  
aparia biharko utzi.

Gaurko gehiegizkoa biharko utzi.

Larraun

Mazteki ihardularien ele edereez ez fie.

Emakume berritsuen hitz ederrez ez fida.

Mezkiritz

Auzitegian epailariak:

—Zuk gizon honen buruan aulki bat hautsi duzu eta merezi duzun zigorra emango zaizu. Ba al daukazu zerbait esateko?

—Bai. Nik ez nuela aulkia hausteko asmorik.



## Bizi Bizian



Iruñeko Orfeioia Zangozan, 1951ko irailaren 16an, berrogeitamar urte bete zituenean, hain zuzen.

ARTXIBOA

# Ehun urtez kantu kantari

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iruñeko talde bat kantatzen has-teko bildu zenean, 1868 aldera, ne-kez pentsa zitekeen hortik aterako zela denboraren poderioz Nafarroa-ko abesbatzik garrantzitsuena izango zena. Talde haren lehendabiziko ur-teak ez ziren oso jarriak izan, asko-tan desagin eta berriro elkartu bait zen, baina 1892an, eta Remigio Mu-jikaren eskuetan, Orfeon Pamplones elkarte finko modura osatu zen.

Hasieran soilik gizonen osatua, mende oso batean zehar sendotu eta finkatu da, eta egun, 130 partaidekin, Euskal Herriko talderik ospetsue-netakoa dugu. Izenak ez du taldea egiten, baina bi pertsonarekiko zor garrantzitsua du orfeoiak. Lehenda-bizikoak Remigio Mujika bera, osatu zenetik 53 urte taldearen buruan egon zena, eta bigarrena, azken zu-zendari artistikoa, Jose Antonio Huarte, aurten 25 urte betetzen duena zuzendaritza lanetan.

Bi ospakizun garrantzizkoak, be-raz, urte berean eta buruan, beste ehun urte betetzea, Jesus Arrastia taldeko idazkariak azaltzen duenez, «hemen ez bait da amaitzen historia. Ehun urteak ospatu behar dira, jaki-na, baina muga haruntzago dago».

Etorkizuna, baina, inoiz baino ar-giagoa dute, inoiz baino gazteagoa bait da taldea. Honek ekar lezakeen esperientzia falta jendeak duen kul-tura musikal handiagoarekin oreka-tzen da, nonbait, Hualde bera «lehen



Gaurko orfeioia entseiatzen, Pozoblanco kaleko lokalean.

JOXE

zegoen tradizio musikala» galdu izana-z kexu bada ere.

Urte honi begira, ez zaio faltako lana Iruñeko orfeoiari eta, ohizkoa ez dena, gonbidapen frankori ezeta eman behar izan dio taldeak. Sevil-lako Erakusketak, Barcelonako Olinpiadak eta Madrileko urte kul-turalak izugarriko kontzertu pila-keta eragin dute aurten, eta denei gehitu zaie orfeoiaren ehungarren urtebetetze bera.

Egutegi mardularen artean azpi-marratzekoak dira ekainak 13, Sevil-lako Expo-92an egitarauaren bar-ruan emango duen kontzertua, Na-farroako Eguna dela kausa. Nafa-rrako Gobernuak berak antolatuta,

bertako egileen lanak abestuko ditu orfeoiak. Halaber, eta Sevillako eki-taldiaren barruan ere, Beethovenen 'Missa Solemnis' abestuko du tal-deak, Maestranzako Antzokian, eta Euskadiko Orkestrarekin. Kontzer-tua irailaren 25ean izango da, eta lan hori bereziki maitea dute orfeoiari, beraiek abestu bait zuten lehendabi-ziko aldiz Estatu espainiarrean, 1927an.

Halaber, Espainiako Orkestra Nazionalarekin hiru kontzertu ditu hitzartuta orfeoiak, bi Madrilen eta bestea Iruñean.

Horretaz gain, Berlineko Orkestra Sinfonikoak taldeari gonbidapena egin dio abenduaren 23an bertan

Beethovenen Bederatzigarren Sin-fonia abesteko, baina aurrekontua sobera altua denez —bederatz mi-lioi pezeta— babesle bat aurkitu ezean ez dute burutuko. Hala ere, ez dira lan hori abestu gabe geldituko Bordeleko Maiatz Musikalean inter-pretatuko bait dute, Bordele-Akita-niako Orkestrarekin batera.

Hain zuzen ere, orkestra hau au-keratu du taldeak ehungarren urtebe-tezea dela eta antolatu den kontzer-tuetarako, esan bait daiteke orfeoi-aren orkestra dela, makina aldiz elka-rrekin aritu bait dira. Azken ekitaldi hori Anaitasuna kiroldegian izango da seguruenik, eta bertan Nafarroako beste hainbat abesbatzen partaidetza eskuratu nahi da, behiala orfeoiaren zuzendariak izan direnez gain.

Hori izango da pastelaren ginda, baina horretaz gainera, diskoa graba-tzeko asmoa ere agertu du taldeak. «Izan ere, ez dira egunero ehun urte betetzen» dio orfeioi idazkariak. Diskoan Nafarroako lanik aipaga-rirenetakoak bilduko lirake: Hila-rion Eslavaren 'Miserere' eta Rema-charen 'Jesucristo en la Cruz'. Or-kestra oraindik ez dago zehaztuta, baina diskoak Espainiako Radio Na-cionalaren Radio-2ren laguntza teknikoak izango luke.

Horretaz gain, erakusketa histori-koa, liburu eta bideo bat, eta mintzal-di ziklo bat antolatu dira aurten. Orotara, 35 milioi pezetako aurre-kontua, handia zifretan baina gutxi egiten den lana kontutan hartuta.



## Jose Maria Jimeno Jurio .....Etnografoa

**J**ose Maria Jimeno Jurio oso historiagile eta etnologo ezaguna dugu, Nafarroako nortasun euskalduna hobekien ezagutzen duenetakoa. Berak esan duenez, bere herrian —Artaxonan— toponimia ikertzen hasi zenean, euskara nonnahi aurkitzen

zuen eta gure herriaren iraganarekiko maitasunak bultzaturik askotan ezkutatu diguten Nafarroako toponomia ikertzeari ekin zion. Horretaz gehiago ezagutu nahi genuenez, berarengana hurbildu gara esan behar zizkigunak entzuteko asmoz. Benetan zinez interesgarriak.

# «Toponimia solasean ari zaigun lurra da»

KARLOS APESTEGIA / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Noiz hasi zinen zu lan etnografikoez arduratzen?

**JOSE MARIA JIMENO JURIO.**— Joxe Miel Barandiaranen eskutik hasi nintzen, Etniker taldea Nafarroan eratu zenean 60ko hamarkadan. Orduan Barandiaranek Artaxonari buruz eginiko inkestaren lehen fasea argitaratu nuen. Lan horiek egitean ohartu nintzen hogeitamar pertsona inguru elkarrizketatu genuela eta urte baten buruan erdia edo hilik zegoela. Noski, adineko jendea zen eta jende horrekin gure kultura hiltzen ari zela konturatu nintzen. Hori dela eta, hurrengo hiru urtetan nik eginiko inkesta baten arabera, Nafarroa osoa zeharkatzerari ekin nion larunbat eta igandetan. Hau 1972. urtean gertatu zen. Jendearekin hitz egiten nuen eta hor daude nik egindako apunteak.

Honetaz aparte, euskararen gaia dago. Lan etnografiko hau egitearekin batera, nik oso ongi ezagutzen nituen herri batzuen toponimia. Asterrain eta inguruko herrietan ikertzen hasi nintzen eta berriro ere ohartu nintzen euskara toponimian bizi-bizirik zegoela, dokumentu ofizialetan erabili diren hizkuntzak latina eta gaztelera izan badira ere. Orduan nola dakigu guk Nafarroan euskaraz mintzatu dela eta nola finka daitezke euskalkien mugak eta horrelakoak? Toponimia dugu solasean ari den lurra eta toponimia sakonki aztertuz gero, lur horrek gordetzen duen aberastasunaz ohartzen gara. Hau egin ondoren, 1975. urtean Ricardo Ziarrabidek proposatu zidan 'Onosmatico en Vasconia' egitea eta zer esanik ez dago oso gogo handiz hartu nuela lan hau. Iruñerriko bost zendeetatik lau argitaratu dira jadanik eta Antsoaingoa argitaratzeaz dago. Oso lan aberatsa iduritzen zait linguistek eta bestelako ikerlariak beren ikerketa lanak egin ditzaten. Dena den, gure


kultura desagertzen ari dela ikusteak bultzatu ninduen lan hauek egitera. Esan daiteke nire motibazio nagusia haxe izan dela.

**EGUNKARIA.**— Eta zer daukazu orain eskuarteetan?

**JIMENO JURIO.**— Orain badugu aukera polit bat. Hau da, lau urtetan Nafarroa guztiko ikerketa topografiko sakon bat egin behar dugu, Pirinioetatik Ebro ibairaino, eta edo-

**L**au urtetan Nafarroa guztiko ikerketa toponimiko sakon bat egin behar dugu, Pirinioetatik Ebro ibairaino. Edozein motatako toponimoak jasoko dira, gaur egun ahozkatzen diren bezala eta baita ahozkatze fonetikoak ere.

zein motako toponimia jasotzeko asmoa dago. Nafar Gobernuak hizkuntz politikarako sailak laguntza eman du lan hau egiteko. Hamabi lagunek osaturiko lan taldean denetarik dago; geografoak, historiagileak, hizkuntz aholkulariak, eta abar. Gaur egungo toponimo guztiak jasoko dira egun ahozkatzen diren bezala, baita ahozkatze fonetikoak ere. Beste batzuk artxibo lanetan arituko dira. Zenbait lekuetan, Iruñerrian adibidez, euskara orain dela mende bat galdu zen eta euskal hitz horiek usteltze bat jasan dute. Beharrezkoa zaigu hitz horiek nola ahozkatzen ziren benetan jakitea eta lan hau lau urtetan egiteko konpromezua hartu dugu. Iruñeko eskualde guztia egina dago, Sakana ere bai eta Gipuzkoarekin muga egiten duten eskualdeetan ere. Bukatzen dugunean, euskalkien arteko aldaketak ezagutu ahal izango ditugu, lexikoa ere aberastu-



Jose Maria Jimeno Jurio bere Iruñeko etxean.

JOXE

ko dugu, euskararen mugak zehaztuko ditugu...

**EGUNKARIA.**— Lan honek, ez al dezake indargabeturik utz Nafarroa ez dela inoiz Euskal Herriko zati bat izan aldarrikatzen dutenen planteamendua?

**EGUNKARIA.**— Lan honen bidez egiaztatu ahal izango da XVII mende arte Nafarroako bizilagun gehienak euskaraz mintzatu direla. Lan honek argiro erakutsiko du Nafarroako euskalduntasuna eta hori

ukaezinezkoa izango da. Adibide bat jarriko dizut: Agoitzen euskaraz mintzatu izan da XIX mendearen erdialdea arte eta 1790. urtean Zangozako lau mutil joan ziren Agoitzera bizitzera eta bi urtetan euskaraz ikasi zuten kalean entzuten zutelako.

**EGUNKARIA.**— Zure ustez, zeintzu izan dira Nafarroan euskararen galera eragin duten arrazoiak? Zaraitzun. Aezkoan, Erronkarin...

**JIMENO JURIO.**— Bai eta Iruñerrian, Amekoetan, Zangozerrian eta zuk

aipatu dituzun beste horietan ere, euskaraz egiten zen. Arrazoiak azaltzea ez da erraza, baina nire ustez, XIX. mendeko lehendabiziko urteak kritikoak izan ziren. Orduan Erresumaren galera izan zen eta Madrilen Nafarroa beste probintzi bat ikusten zuten bitartean karlistek pentsatzen zuten erresuma zela oraindik. Nafarroa erresuma independente bat izan zen bitartean euskaraz hitz egiten zen, herriak lotsarik gabe erabiltzen bait zuten. Erresumaren krisialdi larri honek eragin zuen gutxiagotasun konplexu bat eta eskoletan erdararen erabilerak ere eragin handia izan zuten.

**EGUNKARIA.**— Eta zein izan da zuri poz gehien eman dizun lana, bukatu ikusi eta gero?

**JIMENO JURIO.**— Ez dakit zer esan. Beharbada, argitaratzeko dauden lanak izango dira. Gogo handiak ditut Iruñea eta euskarari buruzko lan bat egiteko. Lan horretan datu guztiz berriak kaleratuko dira, baina lan honek talde baten emaitza izan behar du. Gero bestaldetik, Patxi Salaberri bere tesi doktora bukatzen ari da Uxue eta Oibarreko toponimiari buruz, eta lan hau izango da Nafarroan linguistikan inoiz egin den lanik garrantzitsuena, oso aportazio berriak eta inoiz ikusigabeak izango direlako.

**EGUNKARIA.**— Ematen du toponimia aztertzen hasi zinela euskararekiko maitasunak bultzatuta.

**JIMENO JURIO.**— Neurri batean, bai. Barandiaran hemen zebilela hasi zen dena. Bera izan zen lan guzti hau egitera bultzatu gintuena, eta, jakina, Artaxonan etnografia egiten hasiz gero, euskara leku guztietatik agertzen da, Nafarroako leku aunitzetan bezala. Nik Elon (Monreal) egin nuen Barandiaranen inkesta duela bi urte, eta izugarriko lexiko euskalduna aurkitu nuen, hondarreko lexikoa, egun oraindik mantentzen dena.

**NOSKI JATOR**

**ZVLDI ERQA**

